



ALBOAN

Onuragarria da behartsuentzat NBE-ren erreforma? **Uneko** **erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa**



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXERDITZA ETA GIZARTE
GIZTAKO SAILA
Gizarte Gaitasun Sailburuordetza
Gizarte Lanbidezaintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Objetivos de
desarrollo
del Milenio



Millennium Goals
Helburuak

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuen egoerari buruzko 5 ikerketaz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (sakontzeko koadernoak, komikiak, posterrak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Ikerketak ALBOAN

1. Herritartasunetik hiritartasunera eta hiritartasunetik herritartasunera. Ibiltako bidea. (2006)
2. Participación ciudadana y sistematización de experiencias. (2007)
3. Zenbakiez haratago: Euskadiko garapenerako lankidetza eztabaidan. (2007)
4. Nazioarteko boluntario-lana: inplikazioaren eta elkarriketa kulturalaren esperientzia. Ikasteko esperientzia. (2007)
5. Zor jasangaitza. (2008)
6. Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta "International Finance Facility". (2008)
7. Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak. (2008)
8. Onuragarria da behartsuentzat NBE-ren erreforma? Uneko erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa. (2008)

**Onuragarria da behartsuentzat
NBE-ren erreforma? Uneko
erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Javier Arellano Yanguas

Itzulpena: Elhuyar

Data: ekaina 2008

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-1150-o8

ISBN: 978-84-612-2234-6

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Onuragarria da behartsuentzat NBE-ren erreforma? Uneko erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa

Laburpena	5
I. Sarrera	6
II. Azken hamarkada honetako erreforma-proposamenen laburpen txikia	7
III. Behartsuen “onura” zehazteko irizpideak	11
IV. Proposamenen ebaluazioa	13
V. Ondorioa	17
Bibliografia	18
Laburdurak eta akronimoak	22

ONURAGARRIA DA BEHARTSUENTZAT NBE-REN ERREFORMA? UNEKO ERREFORMA-PROPOSAMENEN EBALUAZIO KRITIKOA

Javier Arellano*

Zalantzak dituzun guztietan edota zure baitako nia handiegia denean, aplikatu ezazu honako hau. Gogoan izan ikusi duzun gizakirik behartsuenaren eta ahulenaren aurpegia, eta pentsa ezazu egingo duzun urratsa baliagarria izango ote zaion. Ezer irabaziko du? Bere bizitzaren eta patuaren kontrola itzuliko dio?

Mohandas Gandhi

LABURPENA

Azken hamar urteotan proposamen-kopuru izugarria izan da NBEren sistema erreformatzeko. Lan honek oraingo proposamenak aztertu eta behartsuentzat zenbateraino izan daitezkeen onuragarriak ebaluatzen du. Ondorioz, ebaluazioa egiteko erabiltzen diren irizpide batzuk identifikatzen ditu azterlan honek. Ondorio nagusia hau da: NBEren erreforma kudeaketaren hobekuntza dela batez ere, eta hori garrantzitsua izanik ere, ez dela nahikoa NBek alor sozioekonomikoan dituen akats nagusiak zuzentzeko. Idazkaritzak estrategikoki erabil litezake bere puntu indartsuetako batzuk, behartsuentzat benetako onurak ekarriko dizkieten etorkizuneko erreforma politikoetarako indar politikoa lortzeko.

*Javier Arellano Yanguas-ek Garapenerako lankidetzaren arloan lan egin du 15 urte baino gehiagoz. 1996 eta 2006 urteen artean ALBOANeko zuzendaria izan zen. Gaur egun, Sussex-eko (Brighton-Erresuma Batua) Unibertsitateko Garapen Ikasketen Institutuan ikerketa egiten dago doktoretza lortzeko.

I. SARRERA

“Erreforma” hitzak Nazio Batuek azterketa izaten duten guztietan erreztatzen den mantra dirudi. NBEren bizitzan, erreforma-proposamen ugari izan dira. Erreformarako deialdiak sortu zenetik urte gutxira hasi ziren (Luck 2003, 1. or; Rosenthal 2005, 10. or.). Joera hori izugarri areagotu da azken hamar urteotan (UN 1997, 2000, 2002, 2004a, 2004b, 2005, 2006a, 2006b). Hala ere, beti beazala, “erreforma” delakoak gauza desberdinak esan nahi ditu hainbat pertsonarentzat, bakoitzaren interes politikoaren arabera. Nahitaez ikuspuntu bat hartu behar denez, lan honek NBEren uneko erreforma-prozesua behartsuen ikuspegitik aztertzen du.

Sorrera-kartaren hitzaurreak NBEren eginkizun instituzionala bi helburu nagusitan oinarritzen du¹: a) *datozen belaunaldiak gerraren izugarrikeriatik babestea* eta b) *gizarte-aurrerapena sustatzea eta bizi-maila igotzea, askatasunaren kontzeptu zabalago baten baitan*. Normalki, lehen helburua NBEren sistemaren “segurtasunaren” dimentsiotzat hartzen da, eta bigarrena, berriz, “garapenaren” dimentsiotzat edo dimentsio “sozioekonomikotzat”. Azken hori Kartan sartzeak aitortzen du *gizarte-aurrerapena* ez dela jadanik herrialde bakoitzaren kezka eskusiboa, nazioarteko komunitateaz kanpo lor litekeena. Alderantziz, nahiz eta herrialde bakoitzak erantzukizun hori izan, gero eta dependentzia global handiagoak herrialdeen arteko elkarlana eskatzen du, herritarren ongizatea hobetzeren. NBEk elkarlan hori sustatzeko erantzukizuna hartu zuen bere gain. Hala ere, badago akordio zabal bat alor horretan behartsuak jasotzeko (Kennedy 2006, 113. or.; South Centre 1995, 27 or.).

Metodologikoki, segurtasunaren eta garapenaren helburuen arteko loturaren inguruko adostasuna gero eta handiagoa bada ere, egokia da bi helburuen artean bereiztea eta, horrela, segurtasunaren eta garapenaren erreforma-proposamenak aparte ebaluatzea, NBEren lana hobetzeko duten probabilitateari dagokionez. Behartsuen interesari buruzkoa izanik, azken hamar urteotako NBEren erreforma-proposamenek “garapenari” buruz duen eginkizuna betetzeko NBEren gaitasuna zenbateraino indartzen duten ebaluatzen du lan honek. Zeregin hori burutzeko, eta tolesgabeegia ez izateko, bidezkoa eta zuzena da azterlan honen metodologian eragina izan beharko luketen bi erronka gutxienez kontuan hartzea. Lehenik, ez da borondate on hutsezko arazoa bestearen ikuspegia hartu eta

¹ Hitzaurreak bere eginkizunaren berri ematen duten balio batzuk ere azpimarratzen ditu: giza eskubideak, pertsonen duintasuna eta nazioarteko hitzarmenak errespetatzeko betebeharra.

geureganatzea. Bigarrenik, “behartsuak” etiketa bat da, oso konplexua eta anitza den eta interes desberdinak eta legitimoak dituen giza taldea estaltzen duena.

Eman den argudioa erreforma-proposamen gehienak kudeaketa-gaietara mugatzen dela da. Erreforma horiek eraginkortasuna hobetzeko garrantzitsuak izanik ere, ez dira aski NBek alor sozioekonomikoan dituen akats nagusiak zuzentzeko (Toye 2004, 280. or.). Ezin da NBek garapenean duen zeregina indartu sistema-ren erreforma politikoren bat sustatu gabe. Errealista izanik, nazioarteko testuingurua ikusita, ez dirudi erreforma horiek epe laburrean burutuko direnik. Hala ere, NBeren sistemaren puntu indartsuetako batzuk (ezagutza eta legitimitatea) beste erreforma politiko batzuk jaso ahal izateko bestelako egoera bat sortzeko erabil daitezke.

Lan honen abiapuntua azken hamar urteotan aurkeztu diren erreforma-proposamen nagusien laburpena da. Ondoren, helburu sozioekonomikoei dagokienez, NBeren erreforma-proposamenak ebaluatzeko irizpiderik egokienak landu eta hautatzen ditu. Gero, hainbat ikuspuntu kontuan hartuta ebaluatzen ditu proposamenak. Azkenik, ondorio batzuk aurkezten ditu.

II. AZKEN HAMARKADA HONETAKO ERREFORMA-PROPOSAMENEN LABURPEN TXIKIA

Kofi Annan Nazio Batuetako idazkari nagusi izan zen garaia (1997-2006) ezaugarria NBeren sistema erreformatzeko behin eta berriro egin ziren proposamenak izan dira. NBeren bizitza osoan erreformatzeko deiak egin diren arren (Luck, 2005), azken hamarkadako ekimenek badute ezaugarri bereizirik. Lehenik, formalki behintzat, erreforma-prozesua idazkaritzak gidatu du, eta gainerako eragileek haren proposamenen aurrean erreakzionatu dute; hori horrela, sistema barrutik erreformatzeko saiortzat har dezakegu (UN 1997, 3. or.). Bigarren, proposamenen kopurua harrigarriro handia izan da. Annanen agintea erreforma estentsiborako programa bat aurkeztuz hasi zen (UN 1997) eta *Ekinbidean bat eginik* (UN 2006b) argitaratuz amaitu da, hau da, idazkari nagusiaren goi-mailako taldearen gomendioez, garapenaren, giza laguntzaren eta ingurumenaren babesaren alorretan Nazio Batuen sistemak duen koherentziari buruz. Bi mugarri horien artean, NBeren beste sei txosten ofizial garrantzitsu izan dira gutxienez, erreformaren gaiari heldu diotenak (UN 2000, 2002, 2004, 2005, 2006a). Bi ezaugarri berezi horiek direla-eta, komeni da NBeren erreformaren ebaluazioa nagusiki

proposamen ofizialak aztertuz hastea, proposamen horien eduki nagusiak argitze aldera. Kanpoko proposamenak aurrerago ikusiko ditugu, ofizialak eztabaibatzeko eta ebaluatzeko.

1997ko uztailean, idazkari nagusiaren kargua onartu eta hilabete batzuetara, Kofi Annanek Batzar Nagusian NBE erreformatzeari buruzko bere lehen txostena aurkeztu zuen. Txostenaren asmoa hauxe zen: *“Nazio Batuek mende berriaren eta milurteko berriaren atarian dauzkagun erronkei heltzeko eraginkorragoak izan daitezkeen moduak identifikatzea”* (UN 1997, 2. or.). Txostenak bi zati ditu. Lehen zatian, kudeaketa-egitura berri bat aurkeztzen da, eta haren helburua Idazkaritzari lidergo indartsuagoa ematea da. Bigarrenean, neurri-multzo bat azaltzen da, eta neurri horien inplikazio praktikoak argitzen ditu. Garapenaren dimentsioan dugun berariazko interesari dagokionez, txostenak honako proposamen nagusi hauek jasotzen ditu: a) alor ekonomiko eta sozialeko hiru sail Gai Ekonomiko eta Sozialen Sail berri batean bateratzea (UN 1997, 69. zk., 139-142); b) Kontseilu Soziala hobetzea, zeinak bere lantaldeekin urtean zehar aurrez finkatutako aldietan funtzionatzen baitu; c) Herrialdeetako Koordinatzaile Egoiliarren eginkizuna indartzea, hainbat programa eta funtsen arteko koherentzia handiagoa bermatzearren (UN 1997, 152-153. zk.); d) Nazio Batuetako Garapen Taldea sortzea, NBGPk, UNICEFek eta UNFPAk osatua. Talde hori NBGPko Administrazioaileak biltzen du, eta haren helburua da garapenaren alorrean ekiteko esparru bateratua ematea (UN 1997, 153-155. zk.); e) NBERen eta Bretton Woods erakundearen artean elkarrekin eraikitzaile baterako deia egitea (UN 1997, 163-164. zk.); f) NBERen garapen-lanerako finantzaketa iragartzen errazago bat ziurtatzeko neurriak hartzea (UN 1997, 165-169. zk.). Laburbilduz, txostenak kudeaketa-arazoak jasotzen ditu nagusiki, eta eraginkortasuna hobetzea du helburu, erakundearen egituraren proposatutako aldaketaren bidez eta hainbat funts, agentzia eta programen eragiketarako koherentzia handiagoaren bidez. Garrantzi politiko handiagoko neurrien erreferentziak –hala nola Bretton Woods erakundetikiko koordinazioa edo kide diren estatuak garapen-ahaleginekin lotzeko bide berriak bilatzea– urriak, sinbolikoak eta, praktikoak baino gehiago, erretorikoak dira. Txostena aurkeztu zen testuinguru politikoa kontuan hartuta, une horretan benetan jokoan zegoena erakundearen finantza-egonkortasuna zela dirudi (UN 1997, 31-33. zk.). Horregatik, nahiz eta eraginkortasuna erreformarako aitzakia gisa agertu, aurrekontu administratiboaren murrizketa izango litzateke zereginik beharrezkoena eta premiazkoena. Hori bat etorriko litzateke AEBko gobernuaren asmoekin, Kofi Annan idazkari nagusi gisa izendatzea bultzatu zuenean (The Economist, 1996, abenduaren 7a).

2000ko irailean, Milurtekoko Gailurrak *Nazio Batuen Milurtekoko Adierazpena* (UN 2000) egin zuen. Garapenaren alorrean, Milurtekoko Gailurrak pobrezia murrizteko helburu batzuk finkatu ditu. Ekimen horren berrikuntzak dira helburuen aniztasuna eta helburu horiek denboran mugatuta dauden asmo zehatz kuantitatiboekin lotuta egotea. Adierazpenak aipamen batzuk jasotzen ditu NBEn barne-erreformari dagokionez. Aipamen horiek aurreko proposamenen errepikapen hutsa badira ere, Adierazpenak rol garrantzitsua dauka NBek mundu-mailako pobrezia murriztean duen zentralitatea indartzeko zereginean eta, beraz, NBE indartsuagoaren beharra azpimarratzean. Geroztik, Milurtekoko Adierazpena erreforma-prozesuari ekiteko eta, nolabait, proposamen positiboek aurrekontu-murrizketek baino espazio handiagoa emateko bultzagarri bilakatu da. Halaber, Mundu Hitzarmenaren ekimena finkatzen lagundu du; hitzarmen horren bidez ehunka enpresak NBEn jardueretan laguntzeko konpromisoa hartu zuten (UN 2002, 12. zk.).

2002ko irailean, idazkari nagusiak erreforma-prozesua aztertu eta neurri berriak proposatu zituen, “*Nazio Batuak Milurtekoko Adierazpenean jasotako lehentasunak lortzeko tresna eraginkorragoa izan daitezen*” (UN 2002, 1. zk.). Garapenaren eta sozioekonomiaren dimentsioei dagokionez, txosten berria ez zen batere originala. *Elkarrekin hobeto lan eginez* etiketaz, txostenak NBeko eragilean eta herrialde guztietako funtsen arteko koordinazio hoberako deia errepikatzen du. Bereziki, Koordinatzaile Egoiliarraren garrantzia azpimarratzen du, eta plangintza eta aurrekontuak bateratzeko zeregina (UN 2002, 119-120. zk.). Gertatu ohi denez, dokumentuak NBEn antolamendu-egitura aldatzeko proposamenak jasotzen ditu. Berrikuntza nagusia NBEn sistemaren eta gizarte zibilaren arteko elkarlanaren aipamena lehen aldiz jasotzea da.

Era berean, 2004an, Mehatxuei, Erronkei eta Aldaketari buruzko Idazkaritza Nagusiaren Goi Mailako Taldeak bere azken txostena aurkeztu zuen. Txostenaren laugarren kapituluak NBEn erreformaren gaiari heltzen dio (*Nazio Batu eraginkorrak XXI. menderako*). Txostenak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren zeregina aztertzen du eta bere mugak onartzen ditu. Taldeak dioenez, “*gai ekonomikoetan erabakiak hartzeari (batez ere finantzarioaren merkataritzaren arloetan) aspaldi utzi zioten Nazio Batuek, eta ezein erreforma instituzionalek ez die itzuliko aukera hori*” (UN 2004, 274. or.). EGBen eginkizun nagusia koordinaziora mugatzen da. Alabaina, funts, programa eta agentzien sakabanaketak zeregin hori oso zail egiten du. Muga horiek egonda ere, Taldeak hiru helburu proposatzen ditu EGBen gaitasuna areagotzeko (UN 2004, 275-278. zk.): a) lidergo araeue-

mailea eta analitikoa ematea eta Segurtasunaren Mehatxuen Alderdi Sozial eta Ekonomikoetarako Batzorde bat sortzea; b) eremu bat eskaintzea estatuek beren konpromisoak neurtzeko, funtsezko garapen-helburuak modu ireki eta gardenean lortzearren; c) garapenerako lankidetzako foro bihurtzea eta EGBen eta Bretton Woods erakundearen arteko urteroko bilera irizpide komunaren eztabaidari leku egiteko erabiltzea.

2005ean, Idazkaritza Nagusiak beste txosten bat argitaratu zuen Milurtekoko Gailurraren emaitzen jarraipena egiteko. *Askatasunaren kontzeptu zabalagoa: guztion garapena, segurtasuna eta giza eskubideak lortzeko bidean*. Bosgarren edizioan, txostenak barne-antolamenduaren erreforma du hizpide. Segurtasun Kontseiluaren eta EGBen arteko asimetriaz hitz egiten du, eta hau dio: “*Kontseilu Ekonomikoa eta Soziala gehiegitan egon da gobernantza global ekonomiko eta sozialaren bazterrean*” (UN 2005, 165. or.). Adierazpen ausart horri txostenak emandako erantzunak hiru neurri konbinatu ditu (UN 2005, n^o 175-177): a) hitzartutako garapen-helburuen aurrerapenari buruz, ministerioen urteroko ebaluazioak antolatzea; b) EGB goi-mailako garapenerako elkarlan-foro bilakatzea, urtean bi aldiz; c) EGBen zeregina indartzea, krisi ekonomiko eta sozialaren erantzunen koordinazioan, hala nola izurriteetan eta hondamendi natural handietan. Gainerako gomendioak aurreko txostenen errepikapena dira: a) koherentzia hobetuaren eta funts, programa eta agentzia espezializatuen arteko koordinazioaren beharra; eta b) Koordinatzaile Egoiliarren sistema indartzea herrialdeetan (UN 2005, 193-201. zk.).

Azkenik, 2006an, beste bi txosten garrantzitsu izan dira, erreformarako hainbat neurri jasotzen dituztenak. Lehena, *Nazio Batuetan inbertitzea: erakundea mundu osoan indartze aldera* (UN 2006a), kudeaketa-gaiak soilik jorratzen ditu, eta pertsonalaren kontratazioa, erakundearen egitura berria, aurrekontuak eta finantzak eta abar jasotzen ditu. Bigarrenak, *Ekinbidean bat eginik* (UN 2006b), ondorioak eta Idazkaritza Nagusiaren goi-mailako taldeak NBEren sistema osoaren koherentziarako eginiko gomendioa aurkezten ditu. Garapenari dagokionez, proposamen nagusiak lau puntutan laburbil daitezke: a) NBE “ekintzari lotzea” nazio mailan, programa, aurrekontu eta Koordinatzaile Egoiliar indartsuago batez NBGPen gidaritzapean (UN 2006b, 14-24. or.; b) NBEren Garapen Jasangarriarako Kontseilu bat ezartzea, NBEren Programa Nazionala gainbegiratzeaz arduratzen dena (UN 2006b, 60-61. zk.); c) EGBen zeregina indartze aldera, Liderren Foro Global bat finkatu beharko luke (L-27) (UN 2006b, 57-59. zk.); d) NBEren Garapen Taldearen eta Bretton Woods erakundearen arteko erlazioa argitu eta indartzea, politiken sendotasuna eta koordinazioa bermatzeko (UN 2006b, 70-71. zk.).

Laburbilduz, azken hamar urte hauetan marka haustea lortu da NBEren erreforma-proposamenei dagokienez. NBEren garapenaren dimentsioarekin zerikusia duten neurriak hiru kategoria nagusitan bil ditzakegu, edukiaren arabera. Lehen, egitura operatibo koherente eta koordinatuaz eraginkortasuna hobetzea helburu duten kudeaketa-neurriak. Horrelako proposamenak dira ohikoenak, eta horiek dira oraingo erreforma-prozesuaren ardatza. Bigarrena, EGBek NBEren sistemaren baitan duen botererik eta eraginik eza gainditzeko gidaritzaneurriak. Arlo horretan, gutxienez esan dezakeguna hau da: proposamenek ez dituztela identifikatutako arazoak jasotzen. Gainera, proposamen horiek ahulak dira sormenari eta hedadurari dagokienez eta, halaber, ez dute koherentziarik. Azkenik, badaude aurrekontu-neurri batzuk, herrialde nagusien konfiantza irabazi nahian. Idazkaritza kezkatuta dago beti aurrekontu-mugen ondorio negatiboengatik eta NBEren lanaren kalitatea aurreikusi ezinagatik. Hala ere, nahiz eta ofizialki aipatu ezin den, NBEk hainbat herrialderekin duen finantza-menpekotasun handia ahuleziatzen du ere jo dezakegu (South Centre 1995, 35-36. or.; AEBko Nazio Batuen Elkarte 2006); izan ere, NBEren erreforma politikoa burutzeko saio oro blokeatzen du. Lehen aipatutako hiru kategorietako sailkapena bezalaxe, merezi du txosten guztietan eta bakoitzean behin eta berriro proposatzen diren neurrien zati handi bat aipatzea. Alde batetik, proposamenak nabarmentzen dituen justifikazioaren koherentzia azpimarratzen du horrek. Hala ere, bestalde, neurriak aplikatzearen porrota islatzen du, eta hori karga bat da NBEren erreforma-prozesuarentzat.

III. BEHARTSUA “ONURA” ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

NBE erreformatzeko proposamenek behartsuei zenbaterainoko onurak ekartzen dizkieten erabakitzea ez da arazorik gabeko zeregina. Zeregin horrek elkarlotuta dauden bi eragozpen-mota hartu behar ditu kontuan: Lehen, “behartsuen” interesen aniztasuna modu sinplean adierazteko zailtasun praktikoa da. Bigarren eragozpena hau da: lehenik NBEren egitura instituzionala taxutzen saiatzen diren neurriak behartsuengan eragina duten emaitza praktikoko bilakatzea. Ondorioz, ez dago irizpide bakar bat NBEren erreforma behartsuen ikuspegitik ebaluatzeko modu sinplean erabil daitekeenik. Beraz, irizpide-multzo konplexuago bat identifikatu behar dugu, osotasunean hartuta eta ahaldu gisa, proposamenak ebaluatzen lagunduko dutenak.

Irizpideak bi multzotan bil daitezke, “funtzional” eta “politiko” gisa sailka ditzakegunak. Irizpide “funtzionalek” erreformek behartsuei zerbitzuak eskaintzeko NBEren gaitasuna zenbateraino areagotzen duten ebaluatu behar dute. Irizpide

“politikoak” erreformak NBEren politika egiteko prozesuetan behartsuen partaidetza hobetzen duen aztertzeko erabil daitezke, eta, hartara, haien erantzukizun politikoa handitu. Bi dimentsio horiek banaka aztertzeko indarrean dagoen erreforma-prozesua nolakoa den kritikoki ulertzen laguntzen du.

Analisi hori egiteko, beharrezkoa da, halaber, garapenaren paradigmaz azken hogeita hamar urteotan izandako aldaketa handia kontuan hartzea. NBE sortu zenean, garapena estatuarekin lotuta zegoen ezinbestean. Estatuaren, aldi berean, garapen-prozesuaren xedea (estatu garatuak eta garatu gabeak) eta eragile nagusia. Gaur egun, garapena pertsonengan oinarrituta dago gehiago (Sen 1999, 35-53. or.). “Giza garapenaren” kontzeptuak estatutik pertsonengana igarotze hori azpimarratzen du. Estatuak eragile gisa bere zentralitatea gorde badu ere, garapenaren xedea pertsonen ongizatea da eta haien gaitasunak eta aukerak handitzea (NBGP 2000, 17. or.). Ondorioz, ezin da “herrialde txiroen onura” “herrialde txiroen eskaeraren” sinonimoa denik pentsatu. Nahiz eta horien artean korrelazio esanguratsua dagoela uste izan, horrek ez du esan nahi zehatz-mehatz trukagarriak direnik. Hartara, bereizketa horrek irizpide zehatzak identifikatzeko prozesuaren berri eman behar du. Garapenerako NBEren lanaren alderdi “funtzionalari” dagokionez, merezi du NBEren sistema edo “familia” deitzen denaren konplexutasunaz ohartzea. Alor sozioekonomikoan, NBEk EGB delakoari kontuak ematen dizkieten 27 organo dauzka (Jolly, 2006). Nahiz eta organo horien ugartasunak eta haien estatus desberdinek gaian adituak ez direnengan nahastea eta “gehiegi” direlako sentsazioa sor dezaketen, egia da, halaber, horietako zazpi soilik direla herrialdeetan presentzia esanguratsua dutenak (Jolly, 2006): NBGP, PMA, UNICEF, UNFPA, ENBGK eta CNUAH. Hala ere, egitura funtzionalaren konplexutasunak erronka bat planteatzen du haien lanaren kalitatea eta eragina ebaluatzeko garaian. Horretarako, NBEk behartsuei zerbitzuak eskaintzean duen eraginkortasuna zehazten laguntzeko, hiru irizpideri erreparatu dio lan honek: a) hedadura garbia eta zentratua; b) eragileen arteko koordinazioa eta koherentzia; c) baliabideen eta zereginen arteko korrelazioa.

Pertsonen garapenerako duten nahia ez da zerbitzu batzuk pasiboki jasotzera mugatzen. Jendeak, gero eta gehiago, parte hartu nahi du bere bizitzan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan (Sen, 1999, 190-191. or.). Subjektu gisa aitortuak izateko beharraz gain, hori bat dator behartsuen partaidetza politikoren eta behartsuen aldeko politiken arteko korrelazio ezagun baina zailarekin (Whitehead eta Gray Molina, 2003, 32-51. or.). Gainera, elkarren artean gero eta lotura global handiagoa dagoen testuinguruan, nazioarteko erakundeetako par-

taidetza politikoa funtsezko tresna bihurtu zen boterea irabazteko (Held 1995, 270-272). Hartara, NBEk behartsuei lagunduko die baldin eta ahotsa izatea eta nazio mailan eta nazioartean parte hartzea ahalbidetzen badie. Garapenerako NBEren zereginaren dimentsio “politiko” hori ebaluatzearren, lan honetan bi irizpide hartzen dira kontuan: a) NBEren erabakiak hartzeko prozesuetan behartsuen ordezkariak bermatzen duten mekanismoak izatea; b) behartsuen onurarako politika nazionaletan eragina izateko NBEren gaitasuna. Bi irizpide-multzo horien helburua NBEren egungo erreforma-proposamenak sistematikoki, baina ez osoki, aztertzea da.

IV. PROPOSAMENEN EBALUAZIOA

Erreformatzeko oraingo proposamenek behartsuen aldeko NBEren garapen-helburua benetan aplikatzea sustatu edo aurreikusi ahal izango duten aztertzerak mugatzen da lan hau. Hala ere, proposamenen benetako esanahia ulertzeko, ezinbestekoa da erreforma gertatzen den testuinguru zabalagoa kontuan hartzea. Testuinguruaren zati garrantzitsua erreformatzeko premiaren jatorria da. Prozesua formalki idazkaritzak gidatu badu ere, denen ahotan dago AEBko gobernuak, askotan beste herrialde garatu batzuen laguntzaz, sistema erreformatzeko etengabeko presioa eragin duela (Khor, 2006; Williams, 2006). Agentzia gainjarriak murriztea, kideen kostuak murriztea eta eraginkortasuna areagotzea dira presio horretarako justifikazioa (Kennedy 2006, 247-248. or.; Seager, 2006). Hala ere, NBEren sisteman garapen-bidean dauden herrialdeen interesa ordezkatzeko duen G-77k² dioenez, erreforma aitzakia da *“NBEk garapenean jadanik duen hutsaren hurrengo eginkizuna ere gehiago murrizteko, batez ere politika ekonomikoan eta sozialean”* (South Centre 2006, 21. or.). Garrantzitsua da testuinguru politiko hori gogoan izatea, erreformari buruzko oraingo eztabaidak ulertzeko; izan ere, askotan argudioak moztaratu egiten dira eta argudio tekniko edo akademiko hutsak dirudite. Goian esan dugunez, proposamen ofizial gehienak kudeaketari buruzkoak dira eta, ondorioz, behartsuei kalitate handiko zerbitzuak eskaintzeko NBEren gaitasuna hobetzeko saioaren baitan daude. Proposamenen balizko emaitza ebaluatzearren, definitu diren hiru irizpideek planteatutako gaiak aztertuko ditu atal honek. Zeregin hori burutzeko beste arazo bat gertakarietan oinarritutako frogen gabezia da. Erreforma-proposamenak pixkanaka aplikatuz jasotako emaitza ageriko eta neurgarriei dagokienez, NBEren sistemak ez ditu sistematikoki kontrolatu. UNICEFek (2004) eta NBGPek

² G-77ko kide-kopurua 131 herrialdera igo bada ere, jatorrizko izenari eutsi zaio, haren garrantzi historikoa dela-eta.

(2004), erreforma-prozesuan izan duten ekarpenari buruzko eta erreformak bi erakundeetan izan duen eraginari buruzko txostenak plazaratu dituzte. Hala ere, txosten horiek ez dute jasotzen haien lanean izan duen eragina. Izan ere, txostenek autopropaganda dirudite, erreforma-prozesuan negoziatzeko posizio hobea-
ren bila. Era berean, funtsezkoak baina urriak diren gertakarien analisi logikoan eta adituek prozesuari buruz duten iritzietan oinarritzen da ebaluazioa.

Lehenik, oraingo proposamenek lagunduko lukete, eskaini behar diren zerbitzuei dagokienez, NBEk duen eragina argitzen eta bideratzen? Erantzuna ezin da erabatekoa izan. Milurtekoko Adierazpena garapen-eremu batean indarra sortzeko berariaz sortu zen, urrutiago irits zedin eta koherenteago izan zedin. Barnera begira, sistemaren hainbat alderdiren ahalegina bateratu beharko luke. Hori horrela, funts nagusien (NBGP, UNICEF eta UNFPA) arteko indarren eragin-trukea eta Nazio Batuen Garapen Taldea sortzea eta lidergo arauemaile eta analitikoaren emateko EGB indartzeko asmoa norabide horretan doazen neurri positibotzat har ditzakegu. Hala ere, kritikoen ustez, Milurtekoko Garapen Helburuek nazioarteko garapen-agenda hondoratu eta deuseztatu egin dute, eta garapen-bidean dauden herrialdeek defendatutako ikuspegi makroekonomikoa blokeatu egin dute (South Centre 2005, 141-143. or.). Gainera, bulego zentraletan langile-kopurua murrizteko joerak antolamendu ez hain “gogoetatsua” eta bateratua izan lezake ondorio, non landa-lanak bere lehentasunak inposatzen baititu, batzuetan ikuspegi hertsiareskin.

Era berean, erreformak eragilearen arteko koordinazioa eta koherentzia hobetuko lituzke? Zalantzarik gabe, eragilearen arteko koordinazioa eta koherentzia hobetzeko ahaleginak, bai bulego zentraletan, bai nazio-mailan, punturik indartsuena dira, eta azken hamar urteotako proposamenen ezaugarri iraunkorra. *Ekinbidean bat eginik*-ek (UN 2006) proposamenak (nazio-mailan) lau puntu nagusitan laburbildu zituen: lider bat, prozedura-multzo bat, programa bat eta aurrekontu bat. Jolly-ren eta Emmerij-en (2006, 6. or.) ustez, sistema barnetik ezagututa, neurri horiek zorrotz aplikatuta uniformetasuna inposatuko litzateke eta, beraz, malgutasuna eta moldagarritasuna murriztuko lirateke. Gainera, herrialde hartzaileentzat solaskide bakarra izatearen abantaila teorikoa minimizatu egiten da, erreformak ez baitu jasotzen inolako koordinaziorik nazio-mailan alde biko emai-leekin eta Bretton Woods erakundeekin. Laburbilduz, oro har, koordinazio-proposamenak positibotzat hartzen dira, baina ez dira inondik ere panazea.

Hirugarren, erreformak hobetuko luke baliabideen (giza eta finantza-baliabideen) eta zereginaren arteko korrelazioa? Antza denez, hori da erreforma-prozesuaren

punturik ahulenetako bat. Erreforma kide nagusiek ezarritako aurrekontu-mugek gidatua dagoen susmopean dago, gaitasun operatiboa ez ezik, zeregin politikoa ere murrizteko (Khor 2006, Williams 2006; South Centre 1995, 35-36. or.). Zoritxarrez, gertaerak bat etorri dira susmoekin eta, 1996tik 2000ra bitartean, NBEren aurrekontu normala 2600 USDtik 2500era murriztu da. Milurtekoko Gailurraren ondoren soilik, aurrekontua zertxobait handitu zen (2891 milioi USD 2002-2003 aldian eta 3608 milioi USD 2004-2005 aldian). Erabile espezializatuentzako eta funtsentzako finantza-baliabideek eredu berbera izan zuten (UN 2006a, 3. or.). Gainera, hiru faktore daude aurrekontu-gastua eta kudeaketa asko baldintzatzen dutenak: a) funts nagusien (NBGP, UNICEF, etab.) finantza-baliabide ia guztiak emaillek libreki emandako borondatezko ekarpenetatik datoz. Gainera, ezin dira alde zuretik planifikatu; b) AEBren ekarpena NBEren Aurrekontu Arruntaren % 22 baino gehiagokoa da, baina atzeratutako ordainketen marka harrigarria dauka (UNA-USA 2006); c) bost kide nagusiek aurrekontu osoaren % 62 ezartzen dute. Ondorioz, NBEren sistema oso ahula da, eta herrialde aberatsen interes politikoen menpe dago. Testuinguru horretan, erreforma-proposamenak bi alderdi ditu: a) kostu administratiboa murriztea, bulego zentralerako plantila gutxituz; b) Mundu Hitzarmena plazaratzea, enpresak inplikatzeko, NBEren aurrekontuetan lagun dezaten. Bi neurriek oposizio gogorra dute, herrialde txiroen posizioa higitzeko joera dutelako (Judge 2000; Zammit 2003; South Centre, 161. or.). Beraz, *gutxiagorekin gehiago egitea* diskurtsoaren zuzentasun politikoa gorabehera, ez dago garbi erreformak alderdi horretan behartsuen alde nola egiten duen.

NBEren sisteman behartsuen boterea handi lezakeen dimentsio “politikorik” ez dago ia erreforma-proposamen ofizialetan. Hala ere, hainbat analistak azpimarratzen dutenez, dimentsio hori ez izate horrek, alor sozioekonomikoan boterearen banaketa desorekatua bere horretan uzten duen horrek, batere anbigua ez den esanahi politikoa dauka (South Centre 2005, 154. or.). Gainera, erreforma “funtzio-naletako” batzuek NBEren osagai demokratikoak ahultzeko joera izango lukete, herrialde aberatsen ardurapekoen (MB eta NMF) alde. Adierazpen horien baliozotasuna ebaluatzearen, ondoko paragrafoek erreforma-prozesuaren alderdi politikoarekin lotuta dauden bi irizpideak aztertzen dituzte, hurrenez hurren.

Lehenik, erreformak laguntzen du NBEren erabakiak hartzeko prozesuetan behartsuen presentzia areagotzen? NBEren egitura instituzionalaren arabera, EGBek gai sozioekonomikoak eztabaidatzeko foro bat eskaintzen du. Txostenek haiek miseria gorrian eta ahaztuta daudela aitortzen dute, baina ez dute ezer pro-

posatzen egoera gainditzeko (UN 2004b, 224.zk.; UN 2005, 165. zk.). G-77ak, aditu batzuek eta gizarte zibilaren zati batek alternatibak aurkeztu dituzte, EGBaren ahalmena sendotzeko, hark bere zeregina bete dezan (Adaba et al. 2003; Archibugi eta Marchetti, 2005; Rosenthal, 2005). Proposamen horiek neurri batzuk jasotzen dituzte, EGBri funtzionalitatea irabazten laguntzen diotenak, hala nola kide-kopurua murriztea eta bilkuren eta agendaren plangintza errealis-tagoa egitea (Kennedy 2006, 270. or.). Ideia erradikalenek Karta aldatzea proposatzen dute, Segurtasun Kontseiluaren paraleloa den Segurtasun Kontseilu Ekonomiko indartsu bat sortu ahal izateko (Bello, 2002, 91-92. or.; Falk, 2002 204-206. or.), edota oraingo EGB bi erakundetan banatzea proposatzen dute, gai sozialak eta ekonomikoak aparte landuko lituzketenak (Kennedy 2006, 269. or.). Ez dirudi horrelakorik gertatuko denik; izan ere, Karta aldatu beharko litzateke eta, beraz, herrialderik boteretsuenen laguntza beharko litzateke. Proposamen horiek aplikatuko balira, eztabaida politikorako espazio handiagoa egongo litzateke, eta aukera gehiago emango litzateke herrialde txiroei haien ahotsa entzunarazteko. Hala ere, horiek ez lukete erabat justifikatuko herri txiroen ordezkari-tzaren auzia, zeinak ezin baitira haien estatuekin erabat identifikatu. Halaber, gizarte zibilaren presentziaren eta gizarte zibilak behartsuen ordezkari izateko duen legimititate eztabaidagarriaren kontua oso erantzun osatugabea da, gehie-nez ere. Norabide zuzenean aurrera egiteko, gobernu globalaren sistema demokratikoagoa behar da, non botere globalak populazioaren erantzukizuna izango baitira, eta ez soilik estatuena. Onartzen da ordezkarien demokrazia batean ahu-lenen boterea murriztu egiten dela, erabakiak zuzenean hautatu dituztenengan-dik urruti hartzen baitira. Beraz, behartsuen interesa behar bezala ordezkatzeko, demokrazia-mota “kosmopolita” sustatu behar da (Held, 1995, 270-283. or.; Bigler, 2005). Alabaina, nazioarteko oraingo testuinguruan, lehen aipatutako neurriak aplikatzeko aukera gutxi baldin badute, azken hori erabat idealista izan-go litzateke, epe laburrera behintzat.

Bigarren, erreformak behartsuen aldeko politika nazionaletan eragina izateko NBEk duen gaitasuna handitzen du? Subiranotasuna NBEren oinarritzko zutabee-tako bat da. Estatuak bereziki arduratsuak dira, haien baitako gaitzat dituzten horietan edozein interferentziari dagokionez. Hortaz, NBEren sistema nazioarte-ko arazoak konpontzeko tresnatzat jotzen da oro har. Azken urteotan aurrerapen kontzeptual batzuk izan dira nazioarteko komunitateak gai nazionaletan esku hartzeko duen eskubideari dagokionez, giza eskubideak argi eta garbi urratzen diren kasu batzuetan (Weiss, 2005b, 69-73. or.). Hala ere, doktrina berria AEBren Troiako zalditzat hartzen denez, nazioartean AEBko esku-hartze militarrek legiti-

matzeko, garapen-bidean dauden herrialde gehienek gogor egin dute horren aurka (South Centre 2005, 143-145. or.). Hori horrela, ez dago lekurik arlo sozioekonomikoan horrelako esku-hartzeetarako, eta erreforma ez doa bide horretatik. Alabaina, paradoxikoki, MBk, NMFK –eta, gero eta gehiago, MMEk– politika nazionaletan eragin sakona duten neurriak ezartzeko gaitasuna daukate. Hori arazo bat da, bi arrazoiengatik. Lehenik, erakunde horiek hartutako politika-motak kalte egin die historikoki txiroen interesei (Bello 2002, 33-51. or.; Tandon 2006). Bigarren, MB eta NMF formalki NBEren familiakoak badira ere, EGBren kontrolpetik at daude, eta beren akziodun nagusien aurrean baino ez dira erantzule. Erreforma-proposamenek arazoa adierazten dute, baina zoritxarrez motz geratzen dira arreta bertara bideratzeko garaian. Era berean, elkarreragin emankorrako baterako deiak izanik ere, Bretton Woods erakundearen eta NBEren sistemaren artean “distantzia mantentzeko” joera aurreikusten da.

V. ONDORIOA

Azken hamarkada honetan NBE erreformatzeko Idazkaritzak aurkeztutako proposamenek ez dakarte hobekuntza handirik behartsuentzat. Erreforma gehienak kudeaketa-hobekuntzari buruzkoak dira, eta, garrantzitsuak izanik ere, ez dira nahikoak. NBE zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde gisa ikustekak, mundu mailako erronka sozioekonomikoei heltzeko gaitasun politikorik ezarekin batera, “gizakiaren legebiltzarraren” (Kennedy 2006) ametsa GKE handi bilakatzeko joera du. Tragikoena hauxe da, NBE handiegia dela GKE eraginkorra izateko, eta ahulegia foro politiko bilakatzeko, non munduko populazioaren gehiengoa diren behartsuak behar bezalako ordezkaritza izango luketen. Ez du zentzurik Idazkaritzari edo funts eta agentziei egoera horren errua botatzeak. Kide diren estatuek, boteretsuenek nagusiki, erantzukizun handia dute NBEk sorrerako Kartan eman zitzaion eginkizuna burutzeko gaitasunik ez izatean.

Diagnostiko ezkor hori gorabehera, badago bide bat egiteko. Idazkaritzak, gobernu batzuekin batera eta gizarte zibilaren zati batekin batera, beste erreforma politiko batzuetarako indar politiko bat sor lezake (Boutros-Ghali, 2006; Utting, 2006, 19-23. or.). NBEren sistemak baditu aktibo batzuk, estrategikoki erabil litezkeenak. Batetik, azken hamarkada hauetan, NBEk ezagutza sortzeko eta pertsonengana zabaltzeko gaitasuna erakutsi du (Jolly 2005; Weiss 2005b, 78. or.). Potentzial hori indartu eta ezagutza bidez praktikan jarri behar da, etekin politikoa ateratzearren. Bestetik, haren lan anbigua gorabehera, NBEk legiti-

tate eta sinesgarritasun handia du behartsuen artean (Toyne, 2004, 280. or.). NBEk jendearen konfiantza hori erabiltzeko aukera dauka, haren itxaropenak hobeto bete daitezen gaitasuna sortzeko.

BIBLIOGRAFIA

- ADABA, G. ET AL. (2003), *A political agenda for the reform of Global Governance: a background policy paper*, New York, Friedrich Ebert Foundation.
http://fesny.org/unreform_docs.htm
- AEBko NAZIO BATUETARAKO ELKARTEA (2006), *All about the United Nations Budget*, Nueva York, UNA-USA.
www.unausa.org/site/pp.asp?c=fvKRI8MPJpF&b=1813833
- ARCHIBUGI, D. eta MARCHETTI R. (2005), *What to do with the United Nations?* Open Democracy, irailak 8.
www.opendemocracy.net/xml/xhtmll/articles/2816.html
- BELLO, W. (2002), *Desglobalización: ideas para una nueva economía mundial*, Londres: Zed Books.
- BIGLER, H. (2005), *How to democratise the United Nations*, Open Democracy, irailak 14.
www.opendemocracy.net/content/articles/pdf/2830.pdf
- BOUTROS-GHALI, B. (2005), The United Nations crisis and its reform, *South Bulletin*, 97/98. zk., 59-63. or.
www.southcentre.org/info/southbulletin/southbulletinindex.htm/59-63
- FALK, R. (2002), *Nazio Batuen sistema: erreformarako prospektiba*, in NAYYHAR, D. (ed.) (2002), *Governing globalization: issues and institutions*, Oxford, Oxford University Press.
- HELD, D. (1995), *Democracia y el orden global: del Estado moderno al gobierno cosmopolita*, Cambridge, Polity Press.
- JOLLY, R. ET AL. (2005), *The power of UN ideas: lessons from the first 60 years*, New York, United Nations Intellectual History Project Series.
www.unhistory.org/UNIdeas.pdf
- JOLLY, R. eta EMMERIJ, L. (2006), *Reform of the UN*, Paper submitted to the Secretary General's High Level Panel on UN coherence and reform [argitaratu gabe].

- JUDGE, A. (2000), *Globalization: the UN's 'safe haven' for the world's marginalized*, Transnational Associations, 6/2000, 295-313. or.
- KENNEDY, P. (2006), *The parliament of man. The United Nations and the quest for World Government*, London, Penguin Books.
- KHOR, M. (2006), *UN reform process hotting up*, Global Policy Forum, 27 March. www.globalpolicy.org/reform/topics/general/2006/0327hotting.htm
- LUCK, E. C. (2003), *Reforming the United Nations: lessons from a history in Progress*, Providence, Academic Council on the United Nation System. www.globalpolicy.org/reform/intro/2003history.pdf
- NAZIO BATUAK (1997), *Reformando Naciones Unidas: Un programa de reforma*, New York, Nazio Batuk, Idazkari Nagusiaren Txostena.
- NAZIO BATUAK (2000), *Declaración del Milenio de Naciones Unidas*, New York, Nazio Batuk.
- NAZIO BATUAK (2002), *Fortalecimiento de las Naciones Unidas: un programa para profundizar el cambio*, New York, Nazio Batuk, Idazkari Nagusiaren Txostena.
- NAZIO BATUAK (2004), *Un mundo más seguro: la responsabilidad que compartimos*, New York, Nazio Batuk, Mehatxuei, Erronkei eta Aldaketari buruzko Idazkaritza Nagusiaren Goi-Mailako Taldearen txostena.
- NAZIO BATUAK (2005), *Un concepto más amplio de la libertad: desarrollo, seguridad y derechos humanos para todos*, New York, Nazio Batuk, Idazkari Nagusiaren txostena.
- NAZIO BATUAK (2006a), *Invertir en las Naciones Unidas: en pro del fortalecimiento de la Organización en todo el mundo*, New York, Nazio Batuk, Idazkari Nagusiaren txostena.
- NAZIO BATUAK (2006b), *Unidos en la Acción*, New York, Nazio Batuk, Goi Mailako Taldea, garapenaren, giza laguntzaren eta ingurumenaren babesaren alorretan Nazio Batuen sistemak duen koherentziari buruzkoa.
- PNUD (2000), *Informe de Desarrollo Humano 2000*, Nueva York, PNUD. <http://hdr.undp.org/reports/global/2000/en>

- PNUD (2006), *Informe Anual 2006: una alianza mundial para el desarrollo*, Nueva York, Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo.
www.undp.org/publications/annualreport2006/un_reform.shtml
- ROSENTHAL, G. (2005), *The Economic and Social Council of the United Nations: an issues paper*, New York, Friedrich Ebert Foundation, Occasional Papers 15. zk.
http://fesny.org/unreform_docs.htm/
- SEAGER, A. (2006), *Inefficient UN must reform to tackle poverty, panel says*, The Guardian, azaroak 10.
www.guardian.co.uk/print/0,,329623934-103681,00.html
- SEN, A. (1999), *Desarrollo como Libertad*. Oxford, Oxford University Press.
- SOUTH CENTRE (1995), *For a strong and democratic United Nations: A South perspective on UN reform*, Geneva, South Centre.
www.southcentre.org/publications/unreform/UNReformPart1.pdf
- SOUTH CENTRE (2005), *What UN for the 21st century? A new North-South divide*, Geneva, South Centre.
www.southcentre.org/publications/whatUN/WhatUN.pdf
- SOUTH CENTRE (2006), *Meeting the challenges of UN reform: A South perspective*, Geneva, South Centre.
www.southcentre.org/publications/AnalyticalNotes/GlobalEconomicGov/2006Aug_UN_Reform.pdf
- TANDON, Y. (2006), *Reform or transformation? End of an era and beginning of a new one*, Geneva, South Centre.
www.southcentre.org/info/EDpage/2006Nov_Geneva_Speech_Ubuntu_Multistake_Dialogue.pdf
- THE ECONOMIST (1996), *Twixt cranks and demagogues*, Londres, 7 de diciembre, Vol. 341, Iss. 7995, 27. or.
- TOYNE, J. eta TOYNE, R. (2004), *The UN and Global Political Economy*, Bloomington, Indiana University Press.
- UNICEF (2004), *Contribución de UNICEF a la reforma de la ONU y su impacto sobre UNICEF*, Nueva York, UNICEF.
www.unicef.org/evaldatabase/files/Chapeau_English_final_090704.pdf

- UTTING, P. (ed.) (2006), *Reclaiming Development Agendas*, Geneva, UNRISD, 1-23. or.
- WEISS, T. G. (2005a), *Governance, good governance and global governance: conceptual and actual challenges*, in WILKINSON, R. (ed.) (2005), *The global governance reader*, Oxon, Routledge.
- WEISS, T. G. ET AL. (2005b), *UN voices: the struggle for development and social justice*, New York, United Nations Intellectual History Project Series.
- WHITEHEAD, L. eta GRAY-MOLINA, G.(2003), *Political capabilities over the long run*. HOUTZAGER, P. eta MOORE, M. (eds.) (2003), *Changing Paths: International Development and the New Politics of Inclusion*, Michigan: The University of Michigan Press.
- WILLIAMS, I. (2006), *Reform or counterrevolution at the UN?*, Foreign Policy in Focus, 2006ko abuztuak 7.
<http://fpif.org/pdf.gac/> [2006ko azaroaren 15ean bisitatua]
- ZAMMIT, A. (2003), *Development at risk: rethinking UN-business partnerships*, Geneva, South Centre eta UNRISD.
www.unrisd.org

LABURDURAK ETA AKRONIMOAK

EGB	Ekonomia- eta Gizarte-arazoetarako Batzordea (Nazio Batuak)
G-77	77en taldea
NMF	Nazioarteko Moneta Funtsa
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
NB	Nazio Batuak
UNA-USA	Ameriketako Estatu Batuetako Nazio Batuen Elkartea
UNCHS	Giza Kokaguneetarako Nazio Batuen Batzordea
NBGP	Nazio Batuen Garapenerako Programa
UNFPA	Biztanleriarentzako Nazio Batuen Funtsa
ENBGK	Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa
UNICEF	Hautzarorako Nazio Batuen Funtsa
AEB	Estatu Batuak
USD	Estatu Batuetako dolarra
MB	Munduko Bankua
EMP	Elikagaien Munduko Programa